

## SUHAR gizon korua

Abesbatzen munduan esperientzia haundia duten 26 abeslariz osaturiko gizonen korua da Suhar. 2018ko udazkenean sortu zen, gizonen abesbatzentsako errepertorioa maila gorenean lantzeko asmoarekin. Esteban Urzelai Eizagirre da taldearen sortzaile eta zuzendaria, eta koruen munduan duen esperientzia luze bezain oparoa proiektu honen bitartez erakustera ematea dauka helburuen artean, Amaia Zipitria piano jolea lagun duelarik.

Gizonen abesbatzek berebiziko garrantzia izan dute gure kultur ondarean. Hasierako “orfeoiak”, elizetako koruak, otxoteak eta antzeko taldeak Euskal Herriko kulturaren protagonista izan dira betidanik.

Suhar, gure abesbatzen iraganetik abiatu eta gizonen koruek beren lekua izango duten etorkizunera eramango gaituen katebegia izateko asmoz jaio da. Iragana eta etorkizuna lotuko dituen zubia, alegia. Gure sukaldariek duela zenbait hamarkada beren ogibidea eraldatu zuten, euskal sukaldaritza berria sortuz. Hala, Suharrek gure arbasoen gizonen koruen kontzeptua eraldatu nahi du, erroei gogor eutsiz, baina proposamen berri eta kalitatezkoak eskainiz.

Beren lehen proposamena, alemaniar eta austriar konpositore errromantikoen musikaz osatua, Donostian aurkeztu zuten 2019ko maiatzean, eta ordutik Azkoitiko Udaberriko Musikaldian, Oñatiako Musika egunetan eta Pasai Antxoko aste musikalean abestu dute, besteak beste.

\*\*\*

Suhar es un coro de voces graves que inicia su andadura en otoño de 2018, agrupando 26 voces experimentadas en el canto coral, con el objetivo de trabajar el repertorio para este tipo de formación al más alto nivel. Es un proyecto impulsado por el director Esteban Urzelai Eizagirre que, con su amplia experiencia en el mundo coral, quiere hacer de Suhar su proyecto personal. En este proyecto participa también la pianista Amaia Zipitria.

Las agrupaciones corales formadas por hombres han sido una de las formaciones más sólidas de nuestro legado coral. Los iniciales “orfeones”, los coros parroquiales, los “ochotes”, y otras agrupaciones de diversa índole han sido protagonistas de la tradición coral del País Vasco.

Suhar quiere ser ese eslabón que nos une con nuestro pasado coral y nos lleve a un futuro donde las voces masculinas tengan su espacio. Así como nuestros cocineros tuvieron que reinventarse hace algunas décadas para llegar a la nueva cocina vasca, Suhar pretende reinventar el concepto del coro de voces masculinas, manteniendo una sólida unión con nuestro pasado, pero ofreciendo un producto nuevo y de calidad.

Su primera propuesta musical, con obras de compositores del romanticismo alemán y austriaco, se presentó en Donostia en mayo de 2019, y desde entonces han participado en “Udaberriko Musikaldia” de Azkoitia, las jornadas musicales de Oñati y la semana musical de Pasai Antxo, entre otros.